



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 10ean

23 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Nafarroako 1999ko kontu orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Jabeldura, Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko. Atzera bidalitako jabeldura (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarreko kasurik larrienenetan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitzeko plan bat egin dezan. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da etorkin guztien egoera legezkatu dezan. Gizarte Gaietako Batzordeak bazter utzia (11. or.).
- Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuari buruzko adierazpen politikoa. Osoko Bilkurak berrestea (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## Nafarroako 1999ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 1999ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Nafarroako 1999ko kontu orokorreari buruzko Foru Legea

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatzea eta kontuak formalizatzea Parlamentuari aurkezteko, horrek eztabaidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onespenera eman diezaien, hori guztia foru legeek ezarri dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikuluan Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorraren formulazioa, eta horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsita dituela, Nafarroako Parlamentura igorri beharko dira behar duten foru lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1999ko ekitaldiko kontu orokorreari buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duelarik eta Nafarroako 1999ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 151. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da foru lege horri onespenera ematea.

**Artikulu bakarra.** Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsitako Nafarroako 1999ko

kontu orokorrak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. LIBURUKIA. Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen kontuak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak, sozietate publikoen kontuak eta 1999rako Nafarroako aurrekontu orokorraren betetze-mailaren azterketa. Liburuki honek, besteak beste, agiri hauek biltzen ditu:

– Gastu eta dirusarrearen likidazioaren egoera-orriak.

– Egoeraren balantze orokorra.

– Emaizten kontua

– Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orriak.

– Diruzaintzako kontu orokorra.

– Zorpetzeari buruzko kontu orokorra.

– Ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa.

– Aurreko ekitaldien ondorioz kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen bilakaera eta egoera azaltzen duen egoera-orria.

– Ekitaldian erabilera orokorrari loturiko jabari publikoko ondasunetan eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.

– Hurrengo ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera-orria.

II ETA III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganbararen eta Foru Komunitateko sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako aurrekontu orokorraren eta egoera-orri finantzarioen likidazioaren xehetasun dokumentuak, 1999ko ekitaldia ixtean.

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa

### ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion artikuluei zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko otsailaren 13eko 13 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

#### 1. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 11. artikuluari. Zerga onurak.

Lehendabiziko lerroaldean "gainerako lurralde nahiz instituzio erakundeak", dioen tokian "gainerako lurralde toki nahiz instituzio erakundeak" esatea.

Zioak: Tasetatik salbuetsirik egonen diren entitateen artean udalak ere sartzea berariaz.

#### 2. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 26. artikuluari. Salbuespenak.

c) letra berria gehitzea:

c) Ziurtagiriak ematea, Foru administrazioiko beste departamentu batek eta haren erakunde autonomoek berariaz eskatuta.

Zioak: Tasak ez pilotzea da arrazoia; ziurtagiri bat eskatzeko beste departamentu bateko beste ziurtagiri bat eskatzen badigute ez du zentzurik bi tasa desberdin ordaintzea eskaera berean.

#### 3. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 36. artikuluari. Salbuespenak.

Artikulua kentzea

Zioak: Toki administrazioarekin, erakunde autonomoekin eta abarrekin gatazka gertatzeko bide ematen du, horiek ere beharturik baitaude ediktuak, lehiaketak, ordenantzak eta bestelako agiriak NAOn argitaratzera. Bestalde, Aldizkari Ofizialaren egoera ekonomikoa argitu egiten da, argitalpen orok tasak ordaindu beharko dituelako.

#### 4. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 66. artikuluari. Karga tasa.

Honekin ordeztea:

Tasa 100eko 4koa izanen da proiektuak idazteko. Proiektuak tasatzeko eta obren balorazio egiteko 100eko 1,1eko tasa aplikatuko da.

Zioak: Proiektu bat idazteko lana ez da proiektua tasatu edo baloratzeko bezalakoa; gure ustez egokiagoa da 100eko 1,1eko tasa tasazioa eta balorazioa egiteko eta 100eko 2,2koa obrak hots emateko, 71. artikulua ezartzen duen bezala.

#### 5. ZUZENKETA

##### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 71. artikuluari. Karga tasa.

Honekin ordeztea:

Tasa 100eko 2,2koa izanen da obrak hots emateko; tasatu eta peritatzeko lanetarako 100eko 1,1eko tasa aplikatuko da.

Zioak: 66. artikuluekin bat.

**6. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 84. artikuluari. tarifak.

3. tarifaren atala kentzea.

Zioak: Nafarroako oihan ondareko mendietan kanpaldiak egitea legezkoa den zalantzan jartzen dugu.

**7. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

85. artikulua aldatzea:

“85. artikulua. Zergagaia

Tasa honen zergagai dira foru lege honetako 88. artikuluan zehazten diren ehiza lizentziak eta ehiza barrutietako matrikulak emateari dagozkion zerbitzuak ematea, ehizan aritzeko beharrezkoak direnak”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

**8. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

86. artikulua aldatzea:

“86. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira kasuko ehiza lizentzia edo matrikula hartzen duten pertsona fisikoak”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

**9. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

87. artikulua aldatzea:

“87. artikulua. Sorrera.

Tasa ehizarako lizentzia edo matrikula hartze-ko eskaera egiten denean bertan sortuko da”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

**10. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

88. artikulua, tarifei buruzkoa, aldatzea proposatzen da. Honela geldituko da:

“88. artikulua. Tarifa.

Tasak honako tarifa izanen du:

1. TARIFA. Ehiza lizentzia: 10.000 pezeta edo 60 euro bost urterako, urte bakoitzeko 2.000 pezeta edo 6 euro.

2. TARIFA. Ehiztariaren azterketa: 2.000 pezeta edo 12 euro.

3. TARIFA. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titulartasuneko ehiza barrutietarako baimenak: 1.000 pezeta edo 6 euro.

4. TARIFA. Ehiza barrutietako matrikula.

Ehiza barrutietako matrikulek ehiza barrutiko ehiza errentaren ehuneko 15eko balioa izanen dute, honela kalkulatu:

a) ehiza barrutiak honela sailkatuko dira haien batez besteko emaitza finkatzeko, ehiza unitate baliokide (U.B)/azalera unitatetan emana:

Ehiza larria:

I. taldea: 100 hektareako 60 UB edo gutxiago.

II. taldea: 100 hektareako 60 UBtik 120ra bitarte.

III. taldea: 100 hektareako 120 UBtik 180ra bitarte.

IV. taldea: 100 hektareako 180 UBtik gora.

Ehiza xehea:

I. taldea: hektareako 0,30 UB edo gutxiago

II. taldea: hektareako 0,30 UBtik 0,80ra bitarte

III. taldea: hektareako 0,80 UBtik 1,50era bitarte

IV. taldea: hektareako 1,50 UBtik gora

Ehiza espezien arteko baliokidetasuna gai hau erregulatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera aplikatuko da.

b) Talde horietako bakoitzak honako balioa izanen du azalera unitateko ehiza-emaizari dago-kionez:

Ehiza larria:

I. taldea: 90 pezeta edo 0,54 euro hektarea bakoitzeko

II. taldea: 140 pezeta edo 0,84 euro hektarea bakoitzeko

III. taldea: 190 pezeta edo 1,15 euro hektarea bakoitzeko

IV. taldea: 290 pezeta edo 1,75 euro hektarea bakoitzeko

Ehiza xehea:

I. taldea: 30 pezeta edo 0,18 euro hektarea bakoitzeko

II. taldea: 60 pezeta edo 0,36 euro hektarea bakoitzeko

III. taldea: 120 pezeta edo 0,72 euro hektarea bakoitzeko

IV. taldea: 200 pezeta edo 1,20 euro hektarea bakoitzeko

c) Bere aprobetxamendu nagusiagatik ehiza larri nahi xehekotzat sailkatuta badago ere barruti batean beste taldeko espezieak ere aprobetxatzen direnean, haren ehiza errentaren balioa bere sailkapen taldeari dagokiona izanen da hektarea-ko hamar pezetatan (0,06 euro) gehitua izanen da.

Zioak: Beharbada administrazio izapidearen akats batengatik, foru lege proiektuan uztaillaren 24ko 144/87 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitako tasak ageri dira, baina horren zergagaiak eta zenbatekoak ez dira bat heldu ehiza eta arrantza arloan egun indarra duen legeriarekin. Hortaz, aldatzea eta egun indarra dutenak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erabiltzen dituenak, alegia, ezartzea proposatzen dugu.

## 11. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

92. artikulua aldatzea:

“92. artikulua. Tarifa.

Nafarroako Foru komunitateko administrazioaren titulartasuneko barrutietan arrantzan aritzeko

baimenen tasarako tarifa 1.000 pezetakoa edo 6 eurokoa izanen da, eta 500 pezeta edo 3 eurokoa, berriz, seinaleko karramarroen barrutietan”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

## 12. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

93. artikulua aldatzea:

“93. artikulua. Zergagaia.

Tasa honen zergagai dira lege indardunek ezartzen dutenez ibai-aintziretako arrantzan aritzeko edo arrantzarako ontziak gertatzeko lizentziak eta matrikulak emateari dagozkion administrazio zerbitzuak”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

## 13. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

94. artikulua aldatzea:

“94. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira ibai-aintziretako arrantzan aritzeko edo arrantzarako ontziak erabiltzeko behar diren lizentzia eta matrikulak eskatzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

## 14. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

96. artikulua aldatzea:

“96. artikulua. Tarifa.

Tasak honako tarifa izanen du:

1. TARIFA. Arrantzarako lizentzia: 7.500 pezeta edo 45 euro bost urterako, 1.500 pezeta edo 9 euro urte bakoitzeko.

2. TARIFA. Ontzietarako matrikulak: 1.000 pezeta edo 6 euro urtebeterako”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

## 15. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 104. artikuluari. Tarifa.

5. idatz-zatian (albaitari zerbitzuak) jabe berriak adoptatutako zakurren kasuan egonaldiko gastuak kentzea.

Zioak: Asmoa baldin bada Animaliak Babesteko Zentroan dauden txakurren adopzioa erraztea, ez da egokia tasa handitzea egonaldiko gastuak gehituz.

## 16. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 164. artikuluari. Tarifa.

“Gehienez” hitza kentzea 1, 2, 3 eta 4 multzoe-tako tarifetan, b) letretan.

Zioak: Aplikatu beharreko tarifa ez du zehazten; gure ustez, ehuneko 0tik 1era bitartekoa izanen litzateke, baina zein irizpideren arabera zehaztu gabe.

## 17. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 169. artikuluari. Tarifa.

A) idatz-zatiko 1. oinarrizko tarifa proposatutako eskalaren orde z hau ezartzea: “instalazioaren balioaren oinarria eurotan bihurtzearen ondoriozkoa, gutxienez 36 euro eta gehienez ere 3.000 euro”.

Zioak: Proposatutakoak sistema bidezkoagoa eta progresiboagoa dakar gure ustez, proiektuak, aurrekontuak, etab. zatitzeko tentazioa saihestez gain.

## 18. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 169. artikuluari. Tarifa.

D) Energia zerbitzuak izeneko idatz-zatiari salbuespen bat gehitzea eguzki-energia alternatiboen (termikoa edo fotovoltaikoa) instalazioetarako laguntzak jasotzen dituzten energia instalazioen kasuan.

Zioak: Energia garbien (ez kutsatzaileen) eta berriztagarrien instalazioa sustatzea da asmoa.

## 19. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zuzenketa 173. artikuluari. Zerga oinarria eta karga tasa.

Idatz-zatiaren amaieran honakoa gehitzea: “...saltze eremuko metro karratu bakoitzeko, lehendabiziko 400 metro karratuko. Hortik aurrerakoei, 400 horietatik aurrera, alegia, 2 euroko karga tasa aplikatuko da”.

Zioak: Saltoki txikien aldeko neurri bat da, eremu handien aurrean.

## 20. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

VI. kapituluaren testuaren aldaketa:

“VI. kapitulua. Ehiza lizentziak eta ehiza barrutietako matrikulak ematearen alderako tasa”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

## 21. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

VIII. kapituluaren izenburua aldatzea:

“VIII. kapitulua. Ibai-aintziretako arrantza lizenziaren eta arrantzarako ontziak matrikulatzearen alderako tasa”.

Zioak: Transkripzio akatsa, idatzitakoa ez baita bat heldu ehiza eta arrantza arloko legeriarekin.

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko abenduaren 12ko

109 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako ondoko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen: "Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako

Erabakia betearazteko Foru Lege proposamena". Proposamen hori 2001eko otsailaren 5eko 8 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko**

### *ATZERA BIDALITAKO JABELDURA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Bardeako tiro poligonoa eraistea eskatzeko onetsi zen erabakiaren ondorioz Nafarroako Gobernuak zer egin duen jakiteko jabeldura aurkeztu du.

Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 1ean egindako bileran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aipatutako jabel-

dura atzera bidali zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Jabeldura hori 2001eko otsailaren 6ko 9 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarren kasurik larrienetan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarren kasurik larrienetan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarren kasurik larrienetan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akusazio partikular gisa aurkez dadin emakumeen aurkako tratu txarren kasurik larrienetan.

## **Erabakia. Horren bidez, Horren bidez, Estatuko Gobernuaren premiatzen da Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 1ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuaren premiatzen da Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuaren premiatzen da Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan**

Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektua erretira dezan, beste bat prestatzeko. Proiektu berriak konponbide orekatuak bilduko ditu, adeitsua izanen da ingurumenarekin, baliabide urri horren erabilera arrazoizkoa bultzatuko du eta harmonikoa eta jasangarria izanen da.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan**

### *GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak, 2001eko otsailaren 27an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da zeinuen hizkuntzaren onarpen ofiziala lortzeko neurriak har ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako

Gobernuaren premiatzen du ofizialki onar dezan zeinuen hizkuntza. Interpretak pixkanaka ezartzeak Foru administrazioarentzat ekarriko lituzkeen behar eta ondorioen ebaluazioa egin beharko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du zeinuen hizkuntza pixkanaka txerta dezan gure Foru Komunitateko hezkuntza sisteman, mota honetako minusbaliotasuna dutenen integrazioa eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea bermatzeko.

3. Era berean, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Nafarroako gorren zentsua eta haien egoerari buruzko txosten bat egin ditzan, kultura, komunikazio eta lana eskuratzeari dagokionez, oinarritzko beharrei erantzuna eman dakien.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du baliabide ekonomikoak jar ditzan zeinuen hizkuntza sustatu, garatu eta ikertzeko.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitzeko plan bat egin dezan**

### *GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak, 2001eko otsailaren 27an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitzeko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea egokitzeko plan bat egin dezan**

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bederatzi hilabeteko epean plan bat aurkez dezan Nafarroako Gobernuaren eraikinak, zerbitzuak eta instalazioak Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoari egokitzearren.

2.- Nafarroako Parlamentuak plan bat prestatuko du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federa-

zioarekin batera, Nafarroako Udal eta Kontzejuen arauak Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoari egokitzearren eta proiektuak kontrolatu eta foru legeari egokitzearren. Horretarako, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak emanen ditu, Nafarroako udal eta kontzejuek foru legea bete ahal izan dezaten.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sarrigurengo urbanizazio berrian komunikazio eta garraioen, lokalen, eraikinen eta espazioen diseinua, exekuzioa eta erabilera arau ditzan, Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak xedatutakoarekin bat etorriz. Proiektuek behar adina neurri jasoko dute minusbaliotasunen bat dutenek garraioak, lokalak, eraikinak eta espazioak erabili eta eskuragarri izan ditzaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarterko Batzordea dei dezan, lehen aipatutako lanei ekin diezaaien, foru legearen betearazpena bultzatzen dezan, foru legea bete behar duten pertsona zein entitateei aholku eman diezaaien, gai horretan gertatu diren aurrerapen teknikoak azter ditzan eta foru legearen edukia berrikus dezan, onetsi zenetik hamabi urte iragan eta gero aplikatzen den eta zer eragingarritasun duen egiaztatzeko.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin guztien egoera legezkatu dezan**

### *GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin guztien egoera legezkatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeak, 2001eko otsailaren 27an eginiko bile-

ran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko otsailaren 20ko 16 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuari buruzko adierazpen politikoa

### OSOKO BILKURAK BERRESTEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 1ean eginiko bilkuran, "Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuari buruzko adierazpen politikoa berrestea" onetsi zuen. Hona haren testua:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Espainiako Gobernuak onetsitako Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuaren aurka dagoela, uste baitu hura lege gisa onesteak arazo handi bat ekarriko diola Ebro ibaiko arroari eta, horren barnean, Nafarroako Foru Komunitateari, eta arriskuan jarriko dituela gure erkidegoko egungo eta etorkizuneko ur-beharrak bete ahal izatea.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Foru Komunitatearen

izenean parte hartzen duen erakunde, organismo eta foroetan, Plan Hidrologiko Nazionalaren aurkako jarrera defendatu behar duela, hori baita Nafarroako herria ordezkatzeko duen foru erakundeko gehiengoaren jarrera.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako Gobernuko Lehendakariak, Plan Hidrologiko Nazionalaren proiektuaren alde "PPk gobernaturiko" erkidegoen bileran parte hartzerakoan, ez duela defendatu Nafarroako Foru Komunitatearen gehiengoak daukan jarrera.

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat..... 6.300 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 ».</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---